

Hezkuntza eta ekintza soziala

(Education and social measures)

Iraola, Imanol
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48
20007 Donostia

Kongresu honetako gai nagusia gizartearen mugimendu sozialen lana ezagutzeko da, eta etorkizuneko erronkei ilusioa azaltzeko da. Eskola erakunde aktiboa bezala gizartearen parte da eta gehiago inplikatu behar da gai sozialean. Komunikazio honetan, praktikatik abiatuz, adibide batzuk aurkeztuko dira: eskolaren sentsibiltatea gai hauei buruz, lan kritiko baten aurkezpena, proiektu berritzaileen pisua gai sozialean. Hezkuntza integralaren garrantzia, etorkizunerako hiritarrak hezitzen saiatu behar garelako.

Giltza-Hitzak: Hezkuntza. Ekintza soziala. Globalizazioa. Espazioa. Sustraiak. Elkartasuna. Itxaropena.

El tema principal de este Congreso es dar a conocer el trabajo de los movimientos sociales existentes en la sociedad, manifestar su ilusión ante los retos del futuro. La escuela como institución activa participa en la sociedad y ha de implicarse más en los temas sociales. En esta comunicación, partiendo de la práctica, se presentan varios ejemplos: sensibilidad de la escuela hacia estos temas, presentación de un trabajo crítico, peso de los proyectos renovadores en los temas sociales. Importancia de la educación integral, porque debemos esforzarnos en educar ciudadanos para el futuro.

Palabras Clave: Educación. Acción social. Globalización. Espacio. Raíces. Solidaridad. Esperanza.

L'objectif principal de ce Congrès est de faire connaître le travail des mouvements sociaux existants dans la société, d'exprimer leur espoir face aux défis du futur. L'école, en tant qu'institution active, participe dans la société et doit s'impliquer davantage dans les thèmes sociaux. Dans cette communication, en partant de la pratique, on présente plusieurs exemples: sensibilité de l'école envers ces thèmes, présentation d'un travail critique, poids des projets rénovateurs sur les thèmes sociaux. Importance de l'éducation intégrale, car nous devons nous efforcer d'éduquer des citoyens pour l'avenir.

Mots Clés: Education. Action sociale. Globalisation. Espace. Racines. Solidarité. Espoir.

1. SARRERA

Eskola gizartearentzako erakunde aktiboa izan behar du, eskola gizartearen zerbitzuan dago. Komunikazio honek baieztatu nahiko luke gizartearen dauden arazoak guztiz loturik daudela eskolarekin, aldi berean eskolako arazoak gizartearen ere isladatzen dira. Ikasle baten curriculumnaren oinarria konplexua izan behar du, askotan merkatuaren mamuagatik eta edo etorkizunerako lanpostuagatik zenbait eduki inportantei garrantzia kentzen zaie, adibidez letretako ikasgaii edo gizarteko arazoei, hain zuzen ere kongresu honetan landuko diren gaiei.

Ikasleak inoiz baino hobeto prestatuta daude, ingelesa menperatzen dute, informatikan iaioak dira, ikasi eta ondorengo lanpostuen orientazioa ematen zaie, askok eta askok etxean Pentium IV. Ordenagailua daukate, mobilarekin oso ondo txatatzeko dute, hamabost pezeta ordaindu ondoren botoiari sakatuz. Latina ezta hain garrantzitsua, matematikaren geometriak balio du “autocad”-en, ez du axola bere balio kontzeptuala...

Irakasleak kezkatuta gaude, pertzepzio negatiboa daukagu, ikasleen formakuntza, aldaketa teknologikoen abiadura, baina nola kontrolatu ikasleen ahalmen kritikoa bere gizartearen aurrean, nola hezitu kontsumoaren gizartearen. Zer neurritan balioa dauka eskolak adibidez telebistaren edo internetaren aurrean, benetan eskolan irakasten diren edukinak nola jasotzen dituzte ikasleek...

Pesimismoan gelditzea negatiboa da. Azken urteetako ahalegin positiboak baloratu behar dira, hala nola IHESA-ren aurkako ekintzak eta gaixoen-tzako elkartasuna, hezkidetzaren formakuntza, ingurugiroaren aldeko kanpainak. Eskola arazo larri batetat jabetzen denean erreakzio positiboa dauka, hots, gizarteak alarma gorria pizten duenean eskola partaide aktiboan bihurtzen da.

2. ZENBAIT ADIBIDE PRAKTIKOAK: IRTEERA DIDAKTIKO BATETAN GERTATUTAKOAK, AIPATUTAKO ARAZOAK ILUSTRATZEKO

Urtero institutuan ohitura daukagu irteera didaktiko bat egitea, 2. LOGSE Batxilergoko ikasleekin, hiru egunetako asteburu bat aprobetsatuz. Aurten Asturiasera joan gara bertako paisai industrial aztertzeke, ikatz meategiak ikusi museo batean, Gijongo zinemaldia eta giro kulturala ezagutzeko. Lehenengo puntuan aipatutako arazoak ilustratzeko bi adibide hartuko ditugu.

PERTZEPZIO NEGATIBOA

Bidaia trenez egin genuen, geografia fisikoa hobeto aztertzeke, klaseetan esplikaturako egitura fisikoak azaltzeko aparteko unea eta gunea. Itzuleran Pajares mendi portuan, Leongo mugan, paisai idilikoa zegoen; basoa gorri-hori kolore guztiekin, Picos de Europako gailurrak elurrak zurituta zeuzkan. Joan ginen irakasleak ikasleei komentatzen paisai honen balioa, hauen jarrera itxia bere musi-

ka entzuten, modako aldizkariak irakurtzen, egoera benetan penagarria zen...

PERTZEPZIO POSITIBOA

Asturiaseko San Vicente-El Entrego meategi museoan: ikasleei sarreran azalpen bat eman genien langileen bizi baldintzei buruz, Espainian nola jaio ziren langileen mugimenduak, Asturiaseko langilegoaren borroka grina II. Errepublikan eta Gerra Zibilan. Museoaren erakusketa ikusi genuen eta meategiaren “jaulan” sartu ginen galeriak bisitatzeke: leku iluna, itxia, meategiko langileen lan eta ordutegi latzak, gogorrak; istripu arriskuaren baieztapena. Elkartu ginenean museoaren kafetegian ikasleen emozio aurpegiak erakusten zizkiguten iralasei ebaluaketa positiboa; gelan langileen bizi baldintzetaz hitzegiten dugunean ez da gai abstraktu bat izango.

3. PROIEKTU BERRITZAILEAK ESKOLAN

Proiektu berritzaile bat martxan jartzeak bere arriskuak dauzka, horregatik ebaluazioa egiterakoan une desberdinak kontutan hartu behar ditugu. Arrisku nagusia “programatik” mugitzen garela eta beldurtu gaitezkeela ikasurte horretan irakatsi behar genituen edukinak behar den bezala eman ez direnik. Abantaila nagusia benetzako irakaskuntza ematen dela bai irakasleak bai ikasleak galderak planteatzen dituztenean. “Ikerketa eta ekintza” metodoa jarraitzen dugunean gai sozialak oso interesanteak dira, ikasleak aldakuntza bat proposatuko du bere gizartearentzako, eta gelako eguneroko partaidetza aktiboa bihurtuko da. Hausnarketa, gizarte zibilek hitzegiten dugunean ez gara horretaz ari? Hiritarrek bere gizarteko gaietan parte hartze zuzena bultzatu behar dutela.

Komunikazio honetan proiektu berritzaile moduan aurten Institutuan, Txindoki-Alkartasuna Beasainen, egiten ari garena azalduko dugu. Proiektua, denboran, ebaluaketa batetan egin dugu, gehigarri moduan Lan-Harremanak ikasgaiaren barnean. Ikasgai honetan ikasleei esplikatu behar zaie lan munduaren egitura. Ikasleen adina hamazazpi eta hogeitun artean dago, Goi-Mailako zikloetan ikasten dute. Proiektuaren gai nagusia izan da “globalizazioak” daukan eragina lan munduan, metodo pedagogiko bezala “Ikerketa eta ekintza” erabili dugu: Gaiaren iturria eta jarraipena egiteko literaturan oinarritu gara, metodologia bezala oso egokia iruditu zaigu zeren eta ikasleei eta irakasleei beste abiadura bat sortzen zaie errealitatea jasotzeko, telebistarekin edo internetarekin konparatuz, modu horretan espresioa eta arrazoi-tzeko gai izatea landuko ditugu prozedurak bezala.

Aukeratutako nobela Jose Saramagoren, *La Caverna*, izan da. Nahiz eta ikasleen taldea “D” eredukoa izan, hau da, ikasgai guztiak euskeraz lantzen dituzte, eleberria gaztelaniaz irakurri dute, nobelaren jatorria portuguesa, modu honetan saiatu gara globalizazioaren alderdi on bat jorratzen, hizkuntza eta kultura ezberdinen topaketa.

Komunikazio honetan ezin dizuegu nobela kontatu, bai aholkatu bera irakurtzea. Nobelaren ildoak Portugalera herri txiki batetan ematen da, artisauen lanak desagertzen ari dira modemitatea dela medio, nekazaritza paisaia guztiz aldatuta dago negutegiak dira nagusi, hiri bat sortu da eta bere "CBD"-A Zentro Komertzial bat da. Aintzinatik ikasitako ohiturak ez daukate balionik, familiaren elkartasuna apurtzen ari da, luraren sustriak, artisauen baseria, ordezkatzeko da Zentro Komertzialean dagoen apartamentu batekin, Zentruan zoriotsua zara, bertako produktuak kontsumitu, Zentroarentzako lana egin, Zentroan ezin dituzu mugimendu bereziak egin, gutxi segurtasuna arriskuan jarri daitekeelako... Nobela irakurri eta zuek ondorioak ateratu.

Ikasleei ebaluaketa amaieran frogatu bat jarri genien, batez ere modu serioan jasotzeko bere iritzia eta ondorengo klaseetan eztabaidak sortzeko, galdera bakoitza saiatzeko da laburtzen nobelan agertzen diren gai garrantzitsuak:

3.1. Familiaren elkartasuna: Cipriano, Marta eta Marcial

Galdera honekin nahi genuen ikasleak hausnarketa bat egitea familiaren garrantziaz, elkartasuna hitza oso lotuta agertzen da gure familietan laguntzarekin, adibidez familiako partaide bat langabezia dagoenean, hori ez da agertzen estadistikan. Noski familia kontzeptua ere zenbait gaietan oztu oia izan da indibiduoaren askatasuna, moral gaitan e.a.

3.2. "Encontrado", familiaren txakurrak, lagun babesa bilatzen du eta eskatzen du, ez al dugu denok hori bilatzen eta ematen?

Galdera honetan sentimenduen garrantzia landu nahi dugu, gauzak bakarrik arazoituz ezin dira ikasi, benetan hezkuntza integralean emaitzak lortu nahi baditugu sentimenduen mundua jorratu behar dugu gure mezuak bameratzeko. Liburu honetan barnepentsamenduari eta sentimenduei garrantzi asko ematen zaie, gaur egungo gizartearen harremanak eta erabakiak kasu askotan oso modu hotzean egiten dira. Baita ere azpimarratu behar da norberaren pentsamendua, gaur egun ikasleei zehazki eta gizarte onari informazio guztia kanpotik jasotzen duela eta bakoitzaren pentsamendu ahalmena galtzen doa, uniformetasun garaian bizi gara...

3.3. Espazioak eta bakoitzaren sustriak, "alfarero" familiaren adibidea

Eleberrietan pertsonak oso lotuta eta baldintzatu daude espazioarekin, topofiliak versus topofobiak, "alfareroen" etxean armonia dago, pertsona bakoitzak modu librean espazio bat aukeratzen du eta bertan atsegin sentitzen da; Zentro komertzialeko apartamentuan ezin da espazioa aukeratu, espazio mugatua da, ezin zara modu librean mugitu... Nobela agertzen den espazioen borroka, hau kongresuarentzako aportazio oso interesantea da

batez ere ingurugiro politikak esplikatzeko, eta pertsonetan modemitatearen kontzeptua nola aplikatzen den eta zer eraginak sor ditzazkeen.

3.4. Tradizioa eta modernitatea aurrez-aurre: lana, harremanak, gauzen balioa, eskulana...

Alfareroen bizitzan gauzak balio bat dute, indarra dauka eguneroko bizitzak, elkarren arteko harremana. Lanaren kontzeptua ez da bakarrik soldata lortzeko, baizik eta pertsonaren hazkunde bat bezala ikusten da, indibiduoak armonian bizi dira, denak dira garrantzitsuak, bata besteari beharra sentitzen dute. Ikasleentzako inportatea da lanaren kontzeptu humanista hori, lana dirua baino zer edo zer gehiago da, zure gizarteari borondatea emateko edo hobeto esanda elkartrukatzeko.

3.5. Zentroaren haunditasuna da bere ustelkeria

Zentro komertzialean azaletik begiratuta denetik dago, aberatsak dira bertako hiritarrak, baina modu humanistikoan egiten badugu azterketa herri txikietan bizi direnak zoriotsuagoak dira, eguneroko harremanetan eta askatasunaren kontzeptu haundiagoa daukate.

3.6. Zer isladatzen da "Cavernan"?

Galdera honetan filosofia hurbiltzen zaie ikasleei, zer balioa daukan bizitzak, nondik datozen ideiak, zer den edertasuna.

3.7. Askatasunaren bidaia: maitasuna, itxaropena, errealitatea aldatzeko grina...

Saramagok animatzen gaitu, pena merezi du borrokatzeak, errealitatea aldatu daiteke. Kongresu honetan agertzen diren borondatezko hainbeste ekintzei bultzada bat ematen die.

3.8. Zu zeuk daukazun ondorioak liburua irakurri ondoren

Pedagogia ireki bat egiten saiatu behar gara, azkeneko hitza ikasleak dauka. Bera ondorio batzuetara ailegatuko da liburua irakurrita, horrela lantzen da iritzi pertsonala, ondorio horiek bestekin konpartituz.

4. ONDORIOAK

Komunikazio guztiaren oinarria klaseko eguneroko praxia izan da. Ondorioa ere hari horretatik jarraituko du, orain dela egun gutxi prentsan honako albisteak agertu zen:

Brasilgo Salvador de Bahia eskola bateko publikitateak, Bin Laderen argazkia agertzen da, ondoan esaldi honekin: "Bin Laden ingenierra. Profesional bat hezitzea erreza da; zailena hiritar on bat hezitzea".